

218. zk.

Bigarren aroa

Abenduak 1
2013

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Gaztea

Sexy Sexers itzuli dira



Kirolak

Erlaitz Mendi Elkarte



Mondragon Unibertsitateko gazte ekintzaileak, sarituak

- 4-5 Gauda San Juanen
- 6 Irun Hiria Argazki Lehiaketako sarituak
- 7 Jostailuak eta genero estereotipoak
- 9 Kirolak. Irungo I. Maratoi Erdia
- 10 Haurren leihoa. Txingudi LH
- 11 Gurasoentzat. Familiaren balioa
- 12 Gazteen Lanak. Hirubide BHI
- 14 Gazte informazioa

www.irunero.com
Sar
zaitez
web orrian eta
Facebooken



La agrícola

Alzukoitz kalea, 1. IRUN. 943 244 118

Zatoz gosaltzera!

Nahi dituzun kafe eta galleta guztiak

1,5 €

8:30etik aurrera



Pierre Lhande graffiti artean



Yurre Ugarte

Badago Pierre Lhande izeneko kale bat Irunen, baita Hondarribian ere. Zortea izan du Pierre Lhandek, Irunen behintzat, ze kale izendegian egokitu zaion zatitxoa ibilbidea da, eta ez gizaki arruntok bizi ditugun etxe arrunten arteko nolana hiko kale bat, ez. Pierre Lhande deritzon ibilbideak, Santiago kaletik hasita, Bidasoa ibaiari jarraitzen dio eskubi aldetik, hau da, Behobiranzko norabidea hartzea besterik ez dago Pierre Lhande-n barna joateko, bidegorria deitzen diogun horretan. Irungo lekuri ederrenetakoa da, Bidasoa ibaiak eta Kantauri itsasoak bat egiten dutenekoa, padura eta uharte zaharren erresuma. Behin Behobiranzko norabidea hartuta, ibilbidea atzean utzirik jada, Lapurdin sartu eta Pierre Lhande zenaren arrastoen bila abia gintezke. Baionan jaio baitzen Pierre Lhande bezala ezaguna zen Pierre Bassagaitz Hegi (1877-1957) jesuita, poeta, euskaltzain, irakasle, eleberrigile, predikari eta hiztegiilea. Besteak beste, 1926. urtean *Dictionnaire basque-français*

deiturikoa plazaratu zuen Parisen, lapurtera, behenafarrera eta zubereraren oinarritua zegoen hiztegia. Baionatik Zuberoara egin zuen Lhandek, Zalgizera hain justu, non amaren familiaren etxean bizi izan baitzen gaztarora arte. 1908an argitaratu zuen liburua, *Euskal sutondoa: kontakizun eta gogoetak* (En torno al hogar vasco, Auñamendi), XX. mende hasierako Zuberoako familia-ereduaren ikerketa soziologiko sakon eta ederra da, Lhandek Zuberoaz zuen ezagutzaren isla, baita ere hark bizitzaz zuen ikuspegi sutuaren isla. 1910ko *L'emigration basque* (La emigración vasca, Auñamendi) liburuan, euskal emigrazioaz ari zelarik, azaleratu zuen euskal senari buruzko ikuspegia, aski poetikoa. Gaur egun, Lhande ezezagun honen kalearen izena graffiti artean dago, garaiak eskatzen duen moduan. Carlos Blanco Aguinaga ere ezezaguna da irundar gehienentzat, eta oraingo kalerik ez duen arren, liburutegi berriak bere izena eramango du. Hirurogei mila biztanleen hirian, liburutegi berriaren izena jada iragarri ostean, ez legoke gaizki garrantzia emango baliote, behingogatik, liburutegiari, hirurogei mila biztanleko hiriak merezi eta behar duen liburutegiari. Besteak beste, Carlos Blanco Aguinagaren eta Pierre Lhande beraren lanak eskainiko dituen liburutegiari. Izenak izen eta graffitiak graffiti.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Ana Grijalba
agrijalba@irunero.com

Kirolak: Naiara Hernandez
Lekuona

Euskara zuzentzailea:
Xabier Kerexeta

Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal,
Amaia Terrazas

sgarcia@baseclick.es

Argitaratzailea:
Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

www.irunero.com

Honako erakunde hauek Irunero diruz laguntzen dute:



Irun atzo Irun gaur



Ibaieta atzo



Ibaieta gaur

Ibaietako ibilbidea Ama Xantalen ermitatik abiatu eta izen bereko gainera daramana da. 1985ean Udalak ibilbideari Ibaieta deitzea erabaki zuen, Luis de Urantz Kultur Taldeak toponimoa berreskuratzeko egindako proposamenari jarraiki.

Gain honek Karlistadetan garrantzia izan zuen, bertan karlistek hiria bonbardatzeko hiru mortero eta bi obus jarri baitzituzten. Hori 1874an gertatu zen, hainbat historiagilek diotenez. Irungo setioa amaituta, gortor-

leku bat eraiki zen han, La Serna jeneral Irungo lehen markesaren aginduz.

1868ko lurralde-aberastasun espedientearen Ibaieta baserriaren jabea Migel Martin Oteiza zela agertzen da.

Goiko argazkia 1907an erabili zen postal bat da. Ospitale zaharra lehen errenkadako etxe multzoa da. Ezkerreko zabalgunean gaur egun Larreaundi auzoa dago.

Iturria: Irungo kaleen izenak. José Monje.

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54-57

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54-57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Kmon taldeko gazte ekintzaileak, sarituak

Joan den azaroaren 14an Irun Ekintzan sariak banatu ziren. Irungo Udalak antolatutako lehiaketa honek hiru irabazle izan zituen: bi enpresa-proiektu berritzaile eta ekintzaile bat. Azken sari hau jaso zutenak, Mondragon Unibertsitateko Kmon ikasle taldeak, erreportajearen protagonistak dira.

MUren Bidasoako Kanpuseko Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza graduako ikasleek taldeka lantzen dute ideia enpresarial bat, ikasketen barruan. Horietako batek, 14 gaztek osatuta, KMON izena du eta dagoeneko junior kooperatiba izateko bidean da. Hasi berritan bultzada polita jaso dute, Proiektu Ekintzailearen saria irabazi dute eta. Irungo merkataritza sustatzeko garatzen ari diren plataforma web elebiduna abiarazteko erabiliko dituzte eskuratutako 3.000 euroak.

Kmon proiektua

Krisiak jo duen merkataritzaren egoeran bilatu behar dira proiektuaren erroak. "Azken bost urteotan 500 komertzio itxi dituztela ikusita, marketin kolektiboaren bidez laguntzea izan da gure helburua". Hartara, sarean presentzia areagotuko duen web plataforma bat diseinatzeari ekin zitoten. "Proiektuaren alderdi be-

rritzailea da Irungo komertzio txiki eta ertain guztiak bildu nahi dituela. Marketin kolektibo honen barruan, merkataritza bere marketin partikularra egin ahal izango du", azaldu dute ikasleek.

Plataformaren erabiltzaileak Irungo satellite-argazki batekin topo egingo du lehenik. Bertan, komertzio bakoitzaren kokalekua ikur batez adieraziko da. "Gainera, bilaketa errazteko, saltokiak agertzen diren indizea txertatuko dugu, zuzenean markagailura eramango duten sektoreetan sailkatuta". Azkenik, bezeroak nahi duen dendako markagailuan klikatzean, leiho bat irekiko zaio. "Hori izango da komertzio bakoitzak bere marketin partikularra egiteko espazioa; hau da, sare sozialen estekak edota eskaintzak txertatzeko lekua".

Kmonen sortzaileek proiektu dinamikoa dela azpimarratu nahi

dute, "oso inportantea izango baita plataforman ematen den informazioa eguneratua egotea". Horretan, jakina, merkatarien inplikazioak zeresana izango du.

Udala eta Mugan elkartea

Irungo Udalarekin zein Mugan Merkatarien Elkartearekin kolaboratzeak garrantzi handia izango duela diote proiektuaren egileek. Mugani dagokionez, haren web gunearen osagarria izan daitekeela uste dute. "Udalaren inplikazioa berebizikoa litzateke, behinik behin, bere zabalkunde kanalak erabili ahal izateko".



Goian, Kmoneko zenbait kide. Eskuinean, Mikel Ormazabal eta Josu Arregi taldekideak, eskutan jasotako saria dutela.

Irun Ekintzan saridunak

Irungo Udalak "Irun Ekintzan: Irungo ekonomia eta enplegua gartzearen aldeko Ituna" ekimenaren bidez, hirian kultura ekintzaile, sortzaile eta berritzailea sustatu nahi du. Sarien lehen edizioan beste bi irabazle izan ziren. HLC SB DISTRIBUCION SL enpresa izan zen kontsolidatutako enpresa berritzailearen kategoriako irabazlea, enpresa hau bakarra baita Europan bere alorrean, Skate munduko produktuen ekoizpen eta banaketan. EKONEK S.L.k enpresa berritzaile gaztearen saria jaso zuen. Azpiproduktuak baliozko produktu bihurtzeko azpiegiturak saltzen ditu. A3+1 ALIANZA ESTRATEGICA SL eta POLIESTER GABIRIA SA eta ECOGIM TECNOLOGIAS SL enpresek epaimahaiaren aipamen berezia jaso dute, berrikuntzan maila jasoarengatik.

Olaizola

Immobiliaria agentzia

- ✓ Salmenta-Alokairuak
- ✓ Promozio berriak
- ✓ Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
 info@inmobiliariaolaizola.com
 www.inmobiliariaolaizola.com

KALEKO INKESTA

Gaua San Juanen: bateragarriak dira bizilagunen atsedena eta tabernak?



Montxo Velasco

Kale Nagusia zarata handien dagoen lekua da. Ene ustez, gaueko 10etatik aurrera kalean edariak ateratzeko debekua gehiegizkoa da. Terrazetan ordu horretatik aurrera zerbitzatzen ahal bada, arazoa ez da konpontzen.

Irtenbide bat bilatu beharra dago. Polizia goizaldean behar da, batez ere frantsesak builaka ari direnean.



Uxue Estebanez

Ulertzekoa da bizilagunen kexua, baina ez al diete traba egiten egunez terrazan dauden bezeroek eta kalean karraxika dabilzan hurrek?

Irunen parranda egiteko inguru askorik ez da. Nire iritziz, politika egokia litzateke aisialdi gune bat sortzea hiritik kanpo. Poliki-poliki horrelako establezimenduak lekuz aldatu behar dira.



Carmen Burgui

Ezin lo egin dabilzan bizilagunen kexuak entzun ditut. Tabernetan erretzea debekatu zutenean hasi ziren arazoak, kaleko zarata dela eta.

Niri tabernak egotea gustatzen zait; kalea girotzen dute. Ongi deritzot ordu jakin batetik aurrera kalean edateko debekua ezartzeari, baina bizilagunak errepetazteko egokiagoa litzateke nork bere burua kontrolatzea, arauen beharrik gabe.



Jorge Maza

Hasteko eta behin, beirazko edalontzien erabilera kalean galarazita egon beharko litzateke. Edan nahi duenak plastikozkoa balia dezala.

Auzokoen haserrea ulergarria da. Nork bere buruari mugak jarri behar dizkio; hau da, gogoan izan non zauden eta nor dagoen inguruan.

Nik gaztetan lagunekin botilatzarra egiten nuenean poliziak ez zigun sekula ezer esaten, zintzoak ginelako. Gai honetan sen ona gailendu beharko da.



Itxaso Martin

Zaila da adostasuna lortzea. Normala da jendeak ongi pasa nahi izatea; baina, aldi berean, ulergarria da auzokoek atsedena hartu nahi izatea. Nik ordutegia luzatuko nuke. Etxea zaratatik babesteko diru laguntzak emateari ongi deritzot. Batzuen eta besteen interesak bateragarri egin behar dira, ezinbestean.



Marcos Pernas

Kontu honetan araua ez da bera denontzat: 10etatik aurrera terrazetan daudenek edaten jarrai dezakete; kalean zutik daudenek, ez. Ez da logikoa.

Bezeroek gogoan eduki behar dute auzokoei traba egiten dietela.

SANTYMAR
Bakailaoa betiko zaporearekin!!

ES 12.06752/55 CE

Egoitza nagusia:
Bideurre-Ureder
Industrialdea
Ventas, 45 - D eraikina,
A-2 nabea. IRUN

Tel: 943 620391
Tel: eta telekopia: 943 620690

bacalaos@santymar.net
comercial@santymar.net
www.santymar.net

Ostalariak kexu dira ordutegi berriak direla eta

Irungo Udalak ostalaritzaren inguruko araudia betearaztea erabaki du auzokoei atsedena bermatzeko. San Juan inguruko ostalariak haserre daude gaueko 10etan leihoak itxi beharrak ekarri dizkien kalte ekonomikoengatik.



Oraintsu arte tabernetako bezeroek gauerdia arte kalean edariak kontsumitu ahal zituzten, baina Irungo Udalak indarrean dagoen araudia errespetaraztea erabaki duenetik, 10etan leihoak itxi behar dira. Terrazetan, ordea, ordu horretatik aurrera edan daiteke, baldin eta edariak zerbitzari batek eramaten baditu. Araua aplikatzeko erabakiaren arrazoia izan da batez ere San Juan plazan eta Kale Nagusian sortzen den zaratak bizilagun zenbaiten salaketak eragin dituela. "Momentu bat iristen da non interes ezberdinek bateragarri izateari uzten dioten. Hots, oreka apurtzen da eta oreka hori berreskuratzeko arauak bere espresio gogorrean betearazi behar dira. Hiria bizirik mantentzea eta aldi berean bizilagunen atsedena eta osasuna bermatzea ez da lan erraza", azaldu du Goizane Alvarez Udaltzaingoaren ordezkariak.

Ostalariak, kaltetuak

Arazo bat konpondu da, baina horrek beste bat ekarri du herrestan. San Juango ostalariak haserre daude neurriak eragin dizkien kalte ekonomikoengatik. Angela Basabe Gaztelumendi-Antxongo nagusiak azken asteotan argi ikusi du "leihoa ixten dugunean bezeroak joaten direla, hain juxtu kalea pil-pilean dagoenean". Bere iritziz "kontraesana da leihoa itxi baina terrazak irekita jarraitu ahal izatea. Eserita daudenek ez al dituzte bizilagunak molestatzeko? Kexu diren bizilagunak oso gutxi dira. Ez dut uste zarata horrenbestekoa denik, ez behinik behin, hain neurri zorrotzak hartzeko modukoa".

Ostalari hau kexu da Udalarik "toldoa, terraza zein leihoa edukitzeagatik zergak ordaindu behar dizkiogulako, eta gainera gero era-gozpenak jartzen dizkigu erabiltzeko orduan".

Konponbideak

Konponbidea bilatzeko orduan Angelak ordutegia zabaldu behar dela iritzi du. "Lehenengo ordutegira, hau da 12:00etara, bueltatu nahi nuke".

Goizane Alvarezek zaila ikusten du ostalarien eta bizilagunen arteko adostasuna. "Bi aldeek interes guztiz kontrajarriak dituzte. Arauek, gaur egun, 22etatik 8ak bitarte bizilagunen atsedena babesten dute. Bizilagun batzuek arauak guztiz betearaztea nahi dute, besterik gabe".

PP alderdiak tabernariak eta bizilagunek negoziazio mahai bat eratzearaztea proposatu du, eta, halaber, auzokoak zaratatik babesteko, datorren urteko udal aurrekontuetan diru laguntza espezifikoak jasotzea. Zehatzago, leiho bikoitzak jartzeko, Udalak kostuaren % 50eko diru laguntza eman dezan nahi du PPK.

BAINU

Aldatu zure bainera dutxa batengatik

Berrikuntza txiki bat, egundoko aldaketa

Zure bainera egungo dutxa talde batengatik aldatzen dugu.
¡Guztia 2 egunetan!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Pelegrin de Uranzu, 9 (Urdanibla plazaren ondoan) - 20304 Irún

943 615 184 - 687 572 920

bainu.irun@gmail.com - www.bainu.eu

Zarautz hiribidea, 86 - 20018 Donostia

943 561 652

BAINU



Pablo Domene-
ren argazki
sorta
honek
Peio
Urtxegi
Ohorezko
Saria
irabazi du
aurten.

Irun Hiria Argazki Lehiaketako 92 lan, ikusgai Amaia KZn

Irun Hiria XXIV. Argazki Lehiaketara aurkeztu diren 92 lan hautatu Amaia KZn erakutsiko dira abenduaren 15era arte.

Aurtengo edizioan 97 egilek parte hartu dute eta guztira 258 lan aurkeztu dituzte. Alacanteko PABLO DOMENEK Peio Urtxegi Ohorezko Saria eskuratu du Barandilla CFM I, II eta III izeneko irudi sortarengatik.

Gai librearen atalean hauek izan ziren sari-tuak: LUIS MARTINEZ donostiarra (1.), ASIER GARAGARZA tolosarra (2.) eta Kordobako JOSE LARA (3.).

Irun gaiari dagokion atalean, irabazlea OSKAR GASKON irundarra (Irungo Argazki Elkarteko kidea) izan zen. Bigarren JESUS HERNANDEZ sailkatu zen, hau ere elkarte-kide eta irundarra. Hirugarrena IVAN GARCIA donostiarrak jaso zuen. Hiriko egileen atalean, hauek jaso zituzten 1., 2. eta 3. sariak, hurrenez hurren: MIGUEL BECERRAK, RAFA HERREROK eta LUIS IRISARRIK; hiruak ere IAEko bazkide eta irundarrak dira.



1



3

1.- Bigarren saria. "Irun" gaia. Egilea: Jesus Hernandez.
2.- Lehen Saria. "Irun" gaia. Oskar Gaskon.
3.- Bigarren Herriko Saria. Rafa Herrero.
4.- Hirugarren Herriko Saria. Luis Irisarri.



2



4

Beheko argazkian: zutik, Jose Miranda (irabazlearen izenean saria jaso zuen IAEko bazkidea), Luis Martinez, Pedro Alegre zinegotzia, Gerardo Garcia IAEko presidentea eta Rafa Herrero. Makurturik: Oskar Gaskon, Ivan Garcia, Asier Garagarza eta Miguel Becerra.



Hirugarren Saria "Irun" gaia. Ivan Garcia.



Lehen Herriko Saria. Miguel Becerra.



Jostailuak eta genero estereotipoak

Artikuluaren egilearen aburuz, jostailuak ez dira mutilentzakoak eta neskentzakoak. "Eraikitzailea sailkatu gabe jolasten ikastea da", dio.

"Halabeharrez", urtaro honetan, jostailuen iragarkiek garrantzi handia izaten dute, batez ere milaka umeri opari egiteko egun giltzarrietan. Halakoetan areagotu egiten da genero maskulinoaren eta femeninoaren artean egin ohi den bereizkeria.

Gehienak, zer eta nola erosi adierazi nahian, genero-estereotipoetan eraikitzen dira. Noiz hasten gara, bada, generoaren arabera bereizten?

Dena hasten da espermatozoideak obuluarekin bat egiten duenean. Orduan, enbrioia hazten hasten da eta hezten hasten zaio. Orduantxe ere egituratzen gara gizon edo emakume gisa.

Haurdunaldian bertan, askotan konturatu gabe ere, hasten gatzazkio fetuari adierazten generoaren arabera nola nahi dugun izatea. Adibidez:

Neska bada (genital femeninoa), oharkabean ere, neskari omen dagozkion izena, kolorea, arropa, jostailuak... esleitzen zaizkio; eta mutila bada (genital maskulinoa), mutilari omen dagozkion izena, kolorea, arropa, jostailuak... esleitzen zaizkio.

Felix Lopezek eta Antonio Fuertesek, "Para comprender la sexualidad" liburuan, zehatz-mehatz argitzen digute alderdi hau:

"Jaio orduko, sexudun izena, jantziak, jostailuak, aktibitateak, eta abar esleitzen ditugu. Izaera, sentimenduak, zaletasunak, pentsamenduak eta desioak ere sexudunak suposatzen zaizkigu. Neskak edo mutilak bere nortasun sexualaren kontzientzia hartu baino lehen ere esleitzen diogu praktikan bizimoduaren dimentsio eta aktibitate guztiak ukitzen dituen sexudun rol bat".

Haurraren hazkundearen baitan, jostailuek berebiziko garrantzia dute trebezia sozialen, psikomotorizitatekoen, kognitiboen, sexualen... garapen orokorrean. Horregatik, interesgarria da erosten diren joko eta jostailuei arretaz erreparatzea.

"Jostailu mota guztiekin jostatzen al naiz?" Neska bati txiki-txikitatik erakusten badiogu gauza batzuk egoki zaizkiola neska delako, horiek bereganatuko ditu. Neska banaiz eta "nesken gauzekin" baino ez badut jolasten ikasten, seguru aski "mutilen gauzek" ez naute erakarriko, aspergarriak irudituko zaizkit. Mutilen kasuan, berdin-berdin gertatzen da. Baina eskura izan ditzakedan jostailu guztiekin jostatzen banaiz, hautatzeko eta erabakitzeke aukera gehiago daukat.

Zertarako bereizi mutilen eta nesken jostailuak? On egiten digu, ala kalte?

Jostailuak ez dira NESKENAK ETA MUTILENAK, ez eta koloreak ere. Koloreak eta jostailuak pertsonenak dira. Eraikitzailea sailkatu gabe jolasten ikastea



"Inporta duena ez da jostailua bera, nola erabiltzen den baizik"

da, jostailuek eta koloreek zerikusirik batere ez baitute nortasun sexualarekin, ez orientazioekin, ez eta desioarekin ere. Hartarako, inportantea da "nesken jokoetan" eta "mutilen jokoetan" jolasten ikastea, neska naizen edo mutila naizen pentsatu gabe. Interesgarria litzateke berdintasunetan eta sexualitatean hezteko, mutila izan, neska izan, umeak bereaz beste sexukoari irakatsi ohi zaizkion trebeziak eta jarrerak beregana ditzan. Halatan, erraztu egiten dira genero bietarako jokabide eta jarrera berdinezale eta enpatikoak.

Galderak honako hauek dira: Nolako jostailuak nahi ditu mutilak edo neskek? Nolako jostailuak erosi nahi ditut nik? Nola lortu jostailu-dendei darien sexismoak al bait gutxien eragitea umearengan? Eta genero bereizkeria egiten badute, nik etxean berdinean egin behar dut? Mutila delako ezin diot sukaldetxorik erregalatu? Neska delako ezin diot kamioirik erosi?

Generoaren arabera sailkatutako jostailuak egon badaude ere, egia da badagoela, egon ere, halako bereizkeriarik egiten ez duen jostailu-erabiltzarik. Eta nik hezkuntza aldatzeko boterea ere badaukat, baztertzaila izan ez dadin.

Jostailuak hezkuntzaren parte bat dira. Inporta duena ez da jostailua bera, nola erabiltzen den baizik.

Eguberri On!

Raquel Calvo Pérez
Sexologia eta Gizarte-Hezitzailea

Kulunkan

Haurrentzako artikulu erdiberrien salerosketa

JARRI NAHI AL DITUZU SALGAI ZURE SEME-ALABEK ERABILTZEN EZ DITUZTEN GAUZAK?

EROSI NAHI AL DITUZU HAURRENTZAKO PRODUKTUAK ERDI-PREZIOAN?

Paseo-aulkak, sehaskak, moisesak, esterilizagailuak, termokak, jostailuak, hamakak, autorako aukiak, oherako hesiak, taka-takak, baserriar jantziak, mozorroak, haurrentzako lanparak...

Alzukaitz, 15 – Irun. 943 61 09 00 • www.kulunkan.com

Erlaitz Mendi Elkarteak, gailurrera iritsi den taldea

1955eko abenduaren 22an sortu zen Erlaitz Mendi Elkarteak, irundar gazte talde baten lan gogorraren ondorioz. Gipuzkoako "Bolo eta Toka" Federazioaren barnean lehendabiziko urratsak eman ondoren, 1958an mendizale elkarte bezala osatu zen. Etorkizuna zein izango zen eta gailurrera iritsiko ote ziren jakin gabe, biltzeko leku bat izateko borrokatu zuten gazte haiek. Gaur egun, beren esfortzuaren ondorioz, 460 bat bazkide ditu kirol- eta gastronomia-elkarte honek.

Erlaitz Mendi Elkarteko kideak Picos de Europako Torre Cerredo izeneko mendirik altuenaren gailurrean.



Udazkeneko arratsalde euritsu bat da. Peña kalean Erlaitz Mendizale Elkarteak duen lokalean atea irekita dago. Barruko barre algarak eta janarien usain goxoak sarrerara iristen dira. Bertan, Andoni Arregi elkarteko presidentea eta Ana Maria Portu emazteak harrera egiten didate. Andoniren aita elkarteko sortzaileetako bat izan zen.

Elkartearen hastapenak

Elkarteko eta lagunekin egoteko leku bat besterik ez zuen nahi irundar lagun koadrila hark. "Garai hartan elkarteak sortzeko ezinbestekoa zen kirol edo gai sozial batekin lotura izatea. Hori dela eta, "Bolo eta Toka" Federazioaren atxikimendua lortu zuten, eta hala sortu zen gure elkarteak Gipuzkoa etorbideko lokal txiki batean".

Hasiera ez zen batere erraza izan; hala ere, esfortzuek saria izan zuten. 460 bazkidek osatzen dute, gaur egun, Bidasoa eskualdeko kirol eta gastronomia elkarte hau. Bi motako bazkideak daude, elkarteko presidentea azaltzen duenez. "Alde batetik, kirol bazkidea dugu, eta bestetik, gastronomiako bazkidea. Bigarren honi, 5 urtez Mendizale Federazioan izena ematea eskatzen diogu; izan ere, elkarteak mendiarekin eta mendizaleekin zuzenean lotura du".

Taldeak mendizaleen saila eta mendi lasterketarena ("Mugalarriak") baino ez ditu gaur egun. Hala ere, orain dela pare bat urtera arte eskalada eta "Erlaitz Txiki" izeneko sailak ere bazituen Elkarteak. "Mendiarekiko errespetua eta maitasuna helarazteko hainbat ikastetxetako ume eta gaztetxoekin irteerak antolatzen genituen mendira. Horretaz gain, eskaladan ibiltzen zen taldea ere bagenuen. Azkenean, boluntario bezala aritzen ziren mendizaleak nekatu eta ordezkorik aurkitu ez genuenez, bertan behera utzi genituen bi sekzioak".

Elkarte gogotsua

Urtean 18-20 bat ibilaldi antolatzen dituzte Erlaitzekoek. Batzuk egunekoak dira eta beste batzuk, ordea, asteburukoak. Gainera, elkartearen ekintza-eremua zabala da. Euskal Herriko edozein menditara antolatzen dituzte irteerak. Horretaz gain, Pirinioetara ere askotan joan ohi dira, baita kostaldeko ibilaldiak egin ere. Ekimen hauek edozein adinetako jendearentzat irekita daude; hala ere, Ana Mari Portuk zehazten duenez, "sasoian egotea oso garrantzitsua da; gutxienez, lau orduko ibilaldiak baitira. Ez dugu atleta bat izatea eskatzen, baina bai gutxienezko prestakuntza bat edukitzea".

Etorkizunera begira



Gorgs Blancsera igoera hasi baino lehen.



Erlaitzeko kide talde bat Pimeneko tontorrean.

30 eta 60 urte bitartekoak dira nagusi elkartean. Mendi-lasterketako sekzioan, berriz, gaztetxoak dira nagusi. Presidentea dioenez, modan jarri den mendi ekimena da. Mugalarriak izena dute eta orain dela pare bat urte

sartu ziren taldean. "Ekimen ugari antolatzen dituzte. Garrantzitsua Erlaitz - Aiako Harria Erdi Maratoia da. Sare sozialen bitartez geratu eta 50-70 bat lagun elkartu ohi dira. Oso giro ona dute. Korrika egiten dute,



Bi mugalari aurtengo Erlaitz - Aiako Harria Maratoi Erdian.

euren arteko lehia txikiak antolatzen dituzte, eta abar. Helburu nagusia ondo pasatzea eta mendi lasterketen mundua ezagutzera ematea dute".

Erlaitz Mendizale Elkartearen egungo egoera ona da; hala ere, goranzko progresioa goi-lautada batean ez gelditzeko itzaropena du presidentea. "Hurrengo belaunaldiak gure erreleboa hartzea espero dut, urte hauetan zehar elkartearen aldeko lan gogorra egin baitugu". Gauzak horrela, hurrengo hitzordua abenduaren 14an izango da, Ardoaren eta Arrainaren 7. ibilbidearekin.

Informazio gehiagorako:
www.erlaitz.com

Irungo Lehenengo Maratoi Erdian izena emateko epea, irekita

21 kilometroko lasterketa honek apirilaren 27an zeharkatuko ditu Irungo kale esanguratsuenak. Espainiako Federazioaren egutegiaren barruan sartuta dagoen maratoi erdi honetan 3.000-4.000 bat korrikalari elkartzea nahi dute antolatzaileek. Lasterketaz gain, hainbat ekitaldi antolatuko dira, kirol ekimen hau behar bezala ospatzeko.

Dagoeneko herri lasterketen denboraldian sartuta gaude erabat. Behobia-Donostian, egutegiko zita garrantzitsuenean korrika egin ostean, Hondarribiko San Silvestrerako prestatzen ari dira jada Bidasoa eskualdeko korrikalariak. 2013ko azken erroka honen ondoren, Irungo maratoi erdiaren lehendabiziko edizioa ekarriko du 2014ak besopean. Lasterketa Irungo Udalak antolatu du, lagun talde baten ekimenez. Antolatzaileek azpimarratzen dutenez, "Irun primeran dago mota honetako lasterketa bat antolatzeko, irteeratik eta helmugatik oso gertu aparkalekuak eta Artaleku kiroldegia baitaude". Horretaz gain, "ibilbidea nahiko laua da eta mugatik gertu egoteak korrikalari kanpotar ugari erakar ditzake".

Maratoi erdiaren ibilbidea

Zabaltza plazan hasi eta bukatuko den lasterketa honek Irungo kale nagusiak zeharkatuko ditu. Hasierako kilometroetan Nafarroa hiribidea eta Zaisa zeharkatuko ditu lasterketak. Ondoren, Azken Portutik itzuliko da, Behobia-Donostia lasterketari keinu eginez. Azken Portun daudela, eskuinera dagoen bidegorritik jarraituko dute parte-hartzaileek, eta Santiago kalera iritsiko dira. Bertatik Urdanibia plazara joan, San Martzial aldapa igaro eta udaltxera iritsiko dira. Kale Nagusia eta Foru kaleak ere zeharkatuko dituzte lasterkariak. Kolon hiribidea iristean, Hondarribia kalerantz joango dira, eta on-

doren Mendelu, Letxunborro, Belaskoenea eta Anaka auzoetan barrena pasako, bertan buelta emateko eta Kolon ibilbidera iristeko. Helmugan bertan, gauzak uzteko kontsignak izango dituzte, bai eta masajista talde bat ere. Bestalde, parte-hartzaileek Irungo Artaleku kiroldegiko ateak irekita izango dituzte, dutxatu nahi izanez gero.


Sari erakargarri ugari

Lehendabiziko maratoi erdi honek 6.000 euro baino gehiago banatuko ditu saritan. Gainera, sari bereziak izango dira, bai hiriko atletentzat, baita kanpotarrentzat ere. Eta hori gutxi balitz, asteburuko egonaldiak, kirol materiala, bazkariak eta aforiak zozketatuko dituzte antolatzaileek. Pedro Alegre kirol zinegotziarentzat "maratoi erdia oso ekimen interesgarria da gure hiriari begira. Espainiako Federazioaren egutegian lehendabiziko edizioaz geroztik egotea oso garrantzitsua da". Izena emateko epea urtarrilaren 31ra arte irekita egongo da. Irungo lehendabiziko maratoi erdian parte hartu nahi izanez gero, federatutako korrikalariak 20na euro ordaindu beharko dituzte, eta federaturik ez daudenek, berriz, 23na euro.

Informazio gehiagorako:

www.mediomaratoniirun.com

Harremanetarako telefona: 943 840219



Aurtengo Txingudi Korrikako irudi bat.

Mugaz gairdiko aholkularitza

MyL mugan
aholkulariak

Ficoba
Iparralde
hiribidea, 43.
IRUN
t 943 537 720
f 943 116 014
m 649 014 096
www.mylmugan.com

ARGITZE ZENTROA



TITULUDUN
PROFESIONALA
Santiago, 51
IRUN
635 703055

- Tailerrak hirugarren adinokoontzat.
- Atsedenaldira zaintzaleentzat
- Gehienez 4 ordu egunero (golzez eta/edo arratsaldez)
- Narriadura kognitiboa gelditzea eta prebonitzea
- Trebezia mentalen eta sozio-emozionalen indartzea

Txingudi Ikastola LH

45. Irungo Hiriko Krosa

2013ko azaroaren 17an, "45. Irungo Hiriko Krosa" ospatu zen Txingudi Ikastolako eremuan.

Goizean goizetik ibili ziren korrika adineko kirolari helduak, baita neska eta mutil gazteak ere, eta, nola ez, gure Ikastolako ikasleak eta Irungo hainbat Ikastetxetako beste zenbait ikasle bai. Gogoz hartzen dute urtero egun hau.

Eguraldia lagun izan ez genuen arren, gure ikasleek inongo beldurrik gabe lohi tartean korri egin zuten, pozik, gainera.

"Oso ongi! Hori da! Hori da eta! Eutsi gogor!..." Esaten zieten senide eta lagunek, korrikalari txikiak animatu nahian.

Igande hartan eguraldi kaskarra eta deserosoa izan arren, gure gaztediaren indarra eta kemena ikusi genituen.

**Krosa Txingudi
Ikastolan izan
zen azaroaren
17an.**



zure enpresari
internetetik zabaltzen
laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



Familiaren balioa

Familia aniztasunean bizi garela zalantzarik ez dagoen arren, batzuetan gizarteak aniztasun hau islatzen ote duen zalantza datorkit. Bikote banantze baten ostean beste bikote bat eratzea ohiko bilakatu bada ere, egoera berri hauek haurrengan zer eragin duten aztertu al dugu? Gurasoen banantzeak haurrengan nola eragiten du? Eta bananduta ez dagoen baina giro txarra duen familia batean nola dago haurra? Haur askok beren guraso bananduak berriro ere elkarrekin bizitzea amesten dute. Zergatik ote? Eta zergatik daude zenbait haur bere gurasoak bana daitezen desio dutenak? Bi egoera hauek loturirik al dute?

Esperientziak argi utzi dit familia eredua baino garrantzitsuagoa dela familia eredua nola eramaten den aurrera. Zer behar du familiak haurrak eredu positibo batean hezi eta hazi ahal izateko? Hona hemen zenbait gogoeta:

- Errutinekin edo eguneroko ohiturekin bat datozen arau gutxi eta argiak ipini behar dira familian: goxo jaiki, gosaldtu, jantzi, aurpegia eta hortzak garbitu, norbere gela txukun utzi... Etxera iritsi, deskantsatu, etxeko lanak, jolastu, pantailentzako tartetxoa, afaldu, ohean irakurri, goxotasun unea eta lotara joatea.

- Guraso biek errutina hauek modu antzekoan ipintzea garrantzitsua iruditzen zait, haurren oreka emozional eta osasun fisikoan eragin positiboa izango baitu. Errutinetan adostasunak bilatzea erraza izaten da gure egiteko modu ezberdinak errespetatzen baditugu.

- Beti ez dugu gure bikotearekin bat egingo, eta kasu horietan gure bikotea gutxietsi gabe jokatzea funtsezkoa da. Noski naturaltasunez eman behar ditugula gure iritzia, baina arreta ipini behar dugu gure bikotea minduz eztabaida sakonean ez sartzeko, haurrak ere min ditzakegulako. Gatazkak ditugula? Haurren aurrean errespetuz hitz egiten dugu; bestela, ez daudenean.

- Familiaren ardurak kide guztien artean adostea eta tarteka horiek aztertzea komeni da. Kide denak elkarrekin hitz egiteko tartekak hartzea komenigarria da etxean zein ardura dauden eta nola doazen hitz egiteko. Batetik, haurrek betebeharrak pertsonalak dituzte (goizeko eta gaueko errutina, etxeko lanak...) eta, bestetik, etxeko lan komunak: mahaia jarri, platerak jaso, arropa garbitzera bota... Denok ahal duguna egin behar dugula ohartzen bagara, giro positiboa bideratuko dugu.

- Gurasoen ardurak haurrak eta etxeko lanen martxa dira. Gizon eta emakumeen berdinta-



sunak gero eta handiago bada ere, oraindik handia da etxeko lanen ardura emakumeengan. Alde batetik, zenbait gizonetarako ez dituztelako lan ohiturak eraiki (nahiz eta gaurko gazteek honetan espezia hobetzen ari diren) eta, bestetik, emakumeek ez dakigulako eginkizunak delegatzen: gauzak gure moduan egin behar dira bikoteari eskua sartzen utzi gabe. Beraz, emakumeek ireki beharra daukagu, gizonetarako beren lekua aurki dezaten.

- Bikoteek denbora hartu behar dute elkarrekin egoteko. Beti esaten dugu esaldi hori, baina egunak joan doaz eta ez dugu egiten. Zein aukera dugu? Astean egun edo tarte finko bat hartzea; elkarrekin bazkaldu, paseo bat eman, kiroldegira joan. Haurrek etenik ez dute, baina aukerak aztertu eta ondo programatu behar direla uste dut. Bikoteak denbora behar du hitz egiteko, mimatzeko eta erlazio afektibo sexualak izateko.

- Haurrak hezteko modurik egokiena "presentzia" dela uste dut. Haiekin egon eta haiekin errutinak sortu. Ez beti pegatuta, baina bai eskura-

Familiaren ardurak kide guztien artean adostea eta tarteka horiek aztertzea komeni da.

garri. Gure eginbeharrek ez digute beti aukera ematen, baina haiekin egoteko eta gozatzeko denbora izatea ezinbestekoa da. Egin, egon eta izaten gozatu. Hori da zoriontasunaren iturri, ezta? Gure haurren presentziak gozatu, haiekin konpartitu eta disfrutatu. Maitasunez begiratu eta maitasunez tinko ipini eguneroko errutinak, haiekin egonez eta

baloratuz. Zer nahi edo espero dugun azaldu erreferentzia positibo batekin, beharrezkoa sentitzen dugunean haserretuz, baina erreferentzia positiboez. Ez diezaiegun esan beti zer ez duten egiten, zer egiteko gai diren ikusi eta gure presentziak egitea bideratu edo animatu. Batzuetan ez gara modu positiboan kokatuko eta normala da, gure erreferentziak gehienetan negatiboak direlako; baina leku positibo honetara bueltatzea bai dago gure esku. Bananduak dauden gurasoentzako gogoeta hurrengoan jorratuko dugu. Izan zoriontsu, haurrekin gauden tarte horietaz gozatu. Sarri arte

MAPI URRESTI ORTIZ
kuttun.kuttun@gmail.com



T. 678 617 907

mgroutulos@gmail.com

Pedro Manuel
 Aristegui kalea, 12
 IRUN



KINEESIS

www.kineesis.net

Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

- METODOA: K-STRETCH®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT

www.k-stretch.com

Hirubide BHI

FRUIT CAKE

Filipinetako errezeta



OSAGAIAK

- Esne kondentsatua, pote 1
- Esne lurrundua, 2 pote
- Galleta pakete 1
- Gustuko fruta pusketetan (mahatsa, anana, ahabiak...)

PRESTAKUNTZA

Lehenengo, esne kondentsatua esne lurrunduarekin nahastu. Gero, ontzi batean galleta kapa bat jarri, gainean beste kapa bat fruta pusketetan eta beste kapa bat esne. Errepikatu behin eta berriz osagaiak amaitu edo ontzia bete arte.

Ontzia izozkailuan sartu 15 minutu, gero beste 15 minutu hozkailuan utzi, eta azkenik 5 minutu eduki mahai gainean, epeltzeko.

Prest dagoenean, koilara erabiliz banatu. ON EGIN!

Pablo Iza Datu eta Musa Layadi Abouelmoroua (DBH 1)

PRIBAZITATEA SARE SOZIALETAN: INOIZ IGO BEHAR EZ ZENITUEN ARGAZKIAK



Beste asko bezala, bazen behin neska bat, eta neska hark bere argazkiak Facebookera igo zituen, bere mutilarekin beste inorekin elkarbanatu gabe. Astebete geroago, no-nahi ikusten ahal ziren.

Istorio bera entzuten da egunero, protagonistak aldatuta. Batzuetan ondorioak hain dira larriak, telebistan ere agertzen dira. Gertatutakoak aztertzen hasi orduko, gaiak beti eramaten gaitu plataforma digital desberdinen pribazitate-aukeren egiturara.

Izan ere, aspaldi honetan datuak babesteko legea hitzetik hortzera darabilgu: intimitate eskubidea dela, cookies delakoak, eta abar.

Xehetasun tekniko eta legala ematea baino, artikulu honek zentzua eta zuzhurtzia gomendatzea du helburu, behin eta berriro esanagatik ez baita arruntena Interneten.

Blogetan argitaratutako artikulu bat baino gehiagotan, teoriar Facebooken ikusterik ez daukagun argazkiak eskuratzeko moduak azaltzen zaizkigu: froga egin dut eta bai, halaxe da. Ez da batere zaila, edozein erabiltzailek jaitsi dezake babestutako argazki bat eta gero inolako mugarik gabe elkarbanatu. Horrek ederki erakusten du gure intimitatea babestea ez dela inondik inora zerbitzu sozial digitalak eskaintzen dizkiguten hornitzaile nagusien kezka nagusia.

Argazki baten intimitatea babesteko orduan badago, alabaina, (ia) inoiz hutsik egiten ez duen sistema bat: ez igotzea Internetera. Txorakeria dirudi, baina... bai, pribatuan mantentzeko modurik segurua da.

Erne: "ia" idatzi dut. Telefono, ordenagailu, tablet edo halako dispositibo digital mugikorra baldin baduzu, irudia lapurtu eta gero publikoki zabaldua izateko aukerak badaude. Hortik aurrera, paranoiko ere jar gaitzke: erabiltzaile-saioari ekiteko pasahitzaren beharra, dispositiboak blokeatzeko patroiak, kriptatutako karpeta pertsonalak, eta abar.

Baina, harira, hau da, Internet barruko pribazitatearen gaira. Ikastaroetan aipatu ohi ditudan trikimailuetako bat (beti eskaintzen dizkiot ordu batzuk pribazitatearen eta segurtasunaren gaiari) da, hain zuzen, sare sozialetan dena zabalik publikatzea, denentzat eskura. Zure burmuinaren ordenagailuan "hauedonorkikusitaereniribost" programa zabaldu behar duzu. Ez baduzu gai batekin programa hori irekitzerik, ez publikatu gai hori.

Horrela ezustekoak eta nahigabeak saihestuko dituzu. Ezagutzen dudan modurik segurua da.

Pablo Moratinos

Marketing online-aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

BAKAILAOA DASTA EZAZU





Sexty sexers, rockeroak bueltan dira

Mikel Larratxe - ahotsa
Joseba Baleztena -
gitarra
Julen Irazoki - gitarra

Xiker Salaberria - baxua
Inaxio Agara - bateria

Sexty Sexers etenik ez emateko egarriz esnatu dira. Munduratu zireneko kideak berriro elkarrekin, bira txiki batekin ozenki esan dute rockeroak ez direla hiltzen. Mikel Larratxe irundarrak xehetasunak eman dizkigu.

- Azken 3 urteotan banda loaldian egon da, baina berriro bueltan da. Zer dela eta?

2001ean lehen aldiz Berako musika eskolan elkartu ginetik atsedean gabe jardun genuen 2010eko azarora bitarte. Bidean 200 kontzertu baino gehiago eta 3 disko eta maketa bat grabatu genituen. Taldea nekatua zegoen eta

atseden txiki bat hartzeko garaia heldu zela erabaki genuen. Atsedean hau taldeko zenbaitek proiektu berriak martxan jartzeko erabili genuen (ZaKillers, Joseba B. Le noir, Mutürbeltz...) eta hasiera batean nahi genuena baino luzeagoa izan da tartea.

- Lehenengo urratsa azaroan egin duzuen bira txikia izan da: *Urkamendian lorarik ez*. Jotzeko horrenbesteko beharra zenuten?

Izugarrizko beharra. Batik bat sextysexers beti zuzeneko animalia izan delako. Urte hasieratik daramagu modu batera edo bertzera material berriari lantzen; baina gure egoera pertsonalak medio prozesua pausatua izaten ari denez, beharra sentitu genuen talde egiten gaituen hura, zuzeneko, berriz ere bizitzeko.

- Zer moduz joan da bira?

Bikain. Bagenekien Psilocyben duela hiru urte azken kontzertua eman genuenean gurekiko espektatiba gorenean zegoela (kontzertu hura ahaztezina izan zen!), eta denbora lapsus honetan jendea gainean izan dugu berriz ere

jotzeko eskatuz. Beraz, erran daiteke bira hau aldeko gure haizeaz izan dela.

- Berrikuntzarik al dakar bigarren aro honek?

Esentzian ez, baina taldean bai. *Hero Mantra*, gure azken diskoa, grabatzeko taldean sartu zen Iñaki 'Fortun' Gonzalezek taldea utzi zuen joan den udaberrian. Taldeko bateria orijinala dugu bueltan orain, Inaxio Agara. Berezia da guretzat, hasiberriak ginen garaiak oroitazten baitzigu; agian horregatik bira honetako errepertorioa gure lehen bi diskoetan oinarritzen da batik bat.

- Kantu berriak prestatzen ari zarete. Nolakoak? Noiz izango dugu entzuteko aukera?

Bada, oraingoz ez dugu ildo garbi bat ikusten kanta eta kanta tartean. *Hero Mantra*n hartu genuen bideari jarraiki nahikoa material heterogeneoa dugu eskuartean. Dena den, behin grabazio prozesua pasata, gauza asko berdintzen dira. Oraindik ezin dugu data jakin batzuek hitz egin; guk lanean jarraituko dugu eta zorte pixka batekin 2014an zehar entzun ahalko dira SextySexersen kanta berriak.



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiljar Jiu Jitsu

Bazkide
nahiz bazkide
ez direnentzat
MASAJEA



Lehiaketak

GIZARTE BERRIKUNTZAKO EUROPAR LEHIAKETA.

Deialdigilea: Europako Batzordea

Gaia: Langabeziaren aurkako proiektuak.

Sariak: 30.000 €ko 3 sari.

Epea: Abenduak 11

Informazioa:

prize2014@socialinnovationcompetition.eu



- ERASMUS BEKAK.

laz beka orokorra eskuratu ez zutenek Hezkuntza Ministerioaren osagarria eskatu behar dute deialdi berezi batean.

www.consumer.es/web/es/educacion/universidad/



Lana

- GABONETAKO HAUR PARKE-RAKO BEGIRALEEN ZAIN ZERREDA.

Aurten ere Ficoban Gabonetan Kultur Kabia izango da enpresa kudeatzailea. Badiute jada behar adina begi-

rale kopurua, baina bajak egon litezke. Interesdunek CVa helbide honetara bidali behar dute, euskaraz:

itsaso@kulturkabia.com



- AISIALDIKO BEGIRALE PRAKTIKAK EGUBERRIETAKO LUDOTEKA BATEAN.

Abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra arte. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da. Monitorearen zeregina 4 eta 10 urte bitarteko haurrentzako jarduerak prestatzea izango da.

Interesatuta daudenak harremanetan jar daitezke:

maleficaursulacruela@hotmail.com

Tel: 647 476 603

Drogak: orientazio zerbitzua

Drogei buruzko Familia Orientazioko Zerbitzua **900 22 22 29** telefonoaren bidez egiten da. Deia doan da. Arreta-ordutegia, astelehenerik ostiralera, 09:00etatik 21:00etara.



Zatoz eskiatzera eta snowa egitera!

- ✓ **Antolatzailea:** Irungo Gaztelekuak
- ✓ **Eguna:** Abenduak 14
- ✓ **Tokia:** Frantziako Arette eski-estazioa
- ✓ **Izen-emateak:** Abenduaren 5era arte
- ✓ **Adina:** 13 - 17 urte
- ✓ **Prezioa:** 50 €
Sekulako aukera duzu, ez ezazu galdu!!!



irun.org/gazteleku

irun.org/igazte

- JOKO ARDURATSUARI BURUZKO IKERKUNTZAREN ONCEREN LEHIAKETA.

Baldintzak:

Banaka edo taldeka har daiteke parte.

Zenbatekoa: 30.000 €.

Epea: Abenduak 31

Informazioa: www.once.es



Bekak

Igazte: abenduko ordutegia

Abenduaren 9tik 30era arte IGazten ordutegi honetan egingo da arreta:

Astelehenetik ostiralera:
11:00 - 13:30

Astelehen eta asteazkenetan:
17:00 - 19:30



Gogoan har ezazu gure atea Interneten egunero-egunero 24 orduz irekita dudela!

Kalean Bai: formazio saioa

Kalean Bai egitasmoaren barne, hezitzaile, begirale eta entrenatzaile euskaldunei zuzendutako formazio-sentiberatze saio bat antolatu da.

Noiz eta non: Abenduaren 11n (18:30-20:00), Irungo Ospitale Zaharreko hitzaldi aretoan (Urdanibia Plaza, 6).

Izen-emateak:

Saioa doakoa da.

SIADeco Ikerketa Elkarte (943 310034)

kaleanbai@siadeco.net



Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Irunero non eskura dezaket?

San Juan

Gaztelumendi
Manolo
Sargia
Udal Liburutegia
Gazte Informazio
Bulegoa
Arano
Corner
Fotokop

Nafarroa hiribidea

Erka material
elektrikoa
Kutxa
Ogi Berri
Hawai
Erauskin

Santiago

Aguirre
Txingudiko
Zerbitzuak

Toma Pan y Moja
Haizea
Swing

Urdanibia plaza

Migel
Ospitale zaharra
Euskaltegia
Euskadiko Kutxa
Eskina
Lasa harategia

Dunboa/Palmera -

Montero/Arbes
Osasun Zentroa
Tahona
Zura
Anetxe
La Agricola
Amalen paper-denda
Biribil

Behobia/Azken

Portu

Azken Portu
kiroldegia
Ogi Berri
Hawai
Hizkuntza Eskola
Eguneko zentroa
K u t t u n a
haurtzaindegia

Kolon ibilbidea eta inguruak

Cadillon Hertz Klinika
Brasil gozotegia
Ogi Berri (Kolon)
Ciaboga
BBVA
Kutxa
Anbulatorioa
Artaleku kiroldegia
Virginia kafetegia
Edurne kafetegia

Erauskin
(Luis Mariano)
Sirimiri
Turismo Bulegoa
SAC-HAZ
Real Union taberna
Gaudí
Mendibil ardotea
Merkairun
Narrea kafetegia
Jaiberri
Luis Mariano
pentsiodunen etxea
Hawaii
Ketan
Santander bankua
Solbes
Oskarbi
Kutxa
Euskadiko Kutxa
Peinart ileapaindegia

Pio XII

La Tahona
Ñ kafetegia
Ogi Berri
Alvaro paper-denda
Erauskin

San Migel

Tabisa
Caser egoitza
Jaizibea okindegia
Senosiain harategia
Dumboa fruta-denda
Uranzu azoka
Gizarte
Segurantzako
Institutua
LANBIDE
BBVA
Santander bankua
Dani urdaitegia
Erauskin

Sabadell
Euskadiko Kutxa
Kutxa
Sotero taberna
Baztan taberna
Ogi Berri-Ogitxu
Aguirre
Adriana Barrios
ileapaindegia

Antzaran

Picking Pack
Rosi kioskoa
Amantegui Hertz
Klinika

Anaka

El Espazio
Kutxa
Mariño
Ogi Berri
Anaka okindegia
Washington taberna

Jaizkibel
janari-denda
Pablo harategia
Anaka Berri erretegia
Covirán Anaka

Puiana

Tahona
Puiana taberna
Ospitalea
Endanea

Larreundi

Larrarte harategia
Toma Pan y Moja
Pedro arraindegia

Elizatxo


Martindozenea
gaztelekuak

Ikasturtean zehar, Irungo ikastetxe guztietan

**Abenduaren 3an****Olerki saioa****Amaia KZn**

19:30ean, *Olerkariak Oteizarekin* saioa. Parte-hartzaileak:

- Carlos Aurtenetxe ("Jorge Oteiza, la piedra acontecida" liburuaren egilea).
- Patxi Ezkiaga ("Oteiza, Profetaren 14 hitz. 14 palabras proféticas" liburuaren egilea)
- Emilio Varela (Oteizari buruzko hainbat ikerketaren egilea).
- Pello Otxoteko Vaquero (poeta eta irakasle irundarra).
- Felix Marañña ("Jorge Oteiza, elogio del descontento" liburuaren egilea).

**Abenduaren 15era arte****Erakusketa****Amaia KZn**

Irungo Argazki Elkarteak antolatutako Irun Hiria Argazki Lehiaketan parte hartu duten 92 lan hautaturen erakusketa.

Abenduaren 6an**Antzerkia****Amaia KZn**

20:00etan, Pentacion konpainiak LASTRES lana antzetzuko du. Zuz: Jorge Roelas. Antzezleak: Anabel Alonso, Marta Belenguer eta Ana Fernandez.

Sarrera: 16 €. 14 urtetik beherakoak: 12 €.

**Abenduaren 7an****Kontzertua****Amaia KZn**

20:00etan, Ensemble de Moxos eta Taupadaken Orkestra Sinfonikoaren kontzertua.

Biltzen den dirua San Ignacio de Moxoseko (Bolivia) musika eskola eta orkestraren alde emango da.

Abenduaren 11n**Literatur solasaldia****Diasso Museoa**

19:00etan, literatur solasaldia. Dinamizatzailea: Mertxe Tranche. Lana: Gustave Flauberten *Salammbô* eleberri historikoa.

Sarrera: 2 €. Kafea eta pastak eskainiko dira.

Abenduaren 15ean**Kontzertua****Junkal elizan**

19:00etan, *Fernando Etxepare in memoriam* Gabonetako kontzertua. Sarrera: Doan

Ongintza kontzertua, Rotary Clubek antolatua AFAGI elkartearen alde. Programako pieza nagusia Faureren Requiem izango da.

**Gabonetako azoka**

Zer: Euskal Kostaldeko Eguberrietako + Eskulangintza Azoka.

Noiz: Abenduaren 6tik 8ra.

Non: Ficoban

Ordutegia: Ostirala eta Igandea: 11:00-20:00 / Larunbata: 11:00-21:00

Sektore anitzeko azoka, hamarnaka erakusketarik osatua.

Josu Bergara

Zer: Josu Bergararen kontzertua.

Noiz: Abenduaren 14an

Non: Kabigorri

Ordua: 23:00etan

Abeslari eta konpositore bakarlaria, 10 urte luzez agertokietan ibilitakoa. Hirugarren diskoa aurkeztuko du, *Katuska gorriak* izenburukoa.

**Euskararen Nazioarteko Eguna JARDUERAK**

| Jarduera | Antolatzailea | Eguna | Tokia | Ordua |
|--|---|------------|--|--------------------------------|
| BERTSO SAIOA | Irunabar + Kabigorri | Abenduak 5 | Kabigorri | 19:30 |
| IKA MIZKA | Gaztezulo, Gipuzkoako Foru Aldundia, Mondragon Unibertsitatea eta ikasleak, Irungo Udala. | Abenduak 3 | Mondragon Unibertsitateko Irungo kanpusean | 11:00 |
| MINTZODROMOA | Irungo euskaltegiak, Mendibil Merkataritza Gunea, Irungo Udala. | Abenduak 3 | Mendibil Merkataritza Gunean | 10:00 - 12:00 // 17:00 - 19:00 |
| POST-IT ART EUSKARAREN ALDE | Irungo ikastetxeak, KUNSTHAL Eskola, Irungo Udala | Abenduak 3 | San Juan plazako pergolan | 10:00 - 21:00 |
| KALEAN BAI. HITZARMEN SINADURA EKITALDIA | Irungo elkarteak, Siadeco, Irungo Udala. | Abenduak 3 | Irungo Udaletxeko Areto Nagusian | 19:30 |
| IPUIN KONTALARIA | Udal liburutegia | Abenduak 4 | Ikust-Alaia liburutegian | 17:30 |

Hotel **A**talaia
J A T E T X E A

ARITZ ONDO 69. 20305 VENTAS IRUN

Tel. 943 635 518 jatetxea

Tel. 943 629 433 hotela ***

info@hoteltalaia.com

www.hoteltalaia.com

MUNDUKO JOSTAILU GUZTIAK PREZIORIK ONENEAN



ETA EUSKAL JOKO GUZTIAK



jostamendi

IRUN Letxunborro hiribidea, 86.
 Tel.943457510.
ORDUTEGIA:
 Abenduan 9:30--20:30

DONOSTIA
 - Prim kalea, 59. Tel: 943455300
 Ordutegia: Abenduan 9:30-20:30.
 - Karmelo Etxegarai, 2 (Benta Berri)
 Tel: 43227910.
 Ordutegia: Abenduan 10:00-13:30 /16:00-20:00

